

7. Funtsezko baliabideak

Proiektua hasi aurretik lokal bat alokatu genuen. Bertan langile guztiak egiten dugu lan. Bakoitzak bere ordenagailu propioa du. Diseinatzaileen ordenagailuak behar dituzten aplikazioekin ekipatuta daude, batez ere diseino grafikoarekin erlazionatuta daudenak. Irene de Miguelek enpresara egiten dituzten deiak hartu eta erantzuten ditu.

Beste alde batetik, hilabetero batzar bat antolatzen dugu enpresako langile guztiaren aplikazioaren funtzionamenduari buruz hitz egiteko. Gainera izaten ditugun arazoak konpontzen saiatzen gara eta bakoitzaren ideiak konpartitzen ditugu. Aplikazioaren irabazien zati bat enpresan inbertitzeko erabiliko dugu; materiala berritzeko, lokalaren mantenimendua, fakturak ordaintzeko, etabar.